ASTEKARIA - 2012ko urtarrilaren 20an - XVI. urtea - Usurbil, 475. zenbakia

TOKIKOM

www.noaua.com

# Noaua!!



Sexu Aholkularitza Gunea, asteartero zabalik



# Kopa Txapelketa helburu



ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK
FRUTARBOLAK LANDATZEKO SASOIA!
Baby Gold
MELOCOTONERO
pessegueiro
Frutarbolak, marrubiak, sustratu organikoak, larrosak...
ALKARTASUNA




Tweets
noaua Aste honetan aztertuko dute Pabo Segurola herritarraren estradizio eskaera noaua.com/?atala=albiste...
noaua Astearteean zabaldu zen Sexu Aholkularitza Gunea, Gizarte Zerbitzuetako egoitzan noaua.com
noaua Bihartik aurrera, Kantu Taldea berriz ere lanean noaua.com/?atala=albiste...
twitter
http://twitter.com/noaua
facebook
http://www.facebook.com/noaua
Interneten ere
aurkituko
gaituzu
NOAUA!
Usurbildarron
zerbitzura

Albistea iruditan!!

# Hurbilagoren gabonetako zozketak, badu saritua

Martin Iturralde Iruretagoiena herritarrak asteburuko egonaldia irabazi du Orduñako Aisia bainuetxean, Hurbilago Elkarteak burutu duen gabonetako zozketari esker. Pentsio osoan, gau batez bertan egon, ibilbide termala osatu eta masaje lasaigarriak jasotzeko aukera izango du. Abendura arte berak aukeraturiko asteburuen batean joan ahal izango du Orduñara. Zozketa, joan den abenduaren 31n burutu zuen Hurbilagok, San Silvestre eguneko herri lasterketa amaitu ostean.



MARTIN ITURRALDEK ERAMAN DU ASTEBURUKO EGONALDIAREN SARIA.

## Telefono interesgarriak

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | DYA | 943 464 622 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Etumeta AEK Euskaltegia | 943 372 001 | Emergentziak | 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Taxia (Angel) | 607 928 770 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 | BBVA | 943 377 155 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Eusko Tren | 943 470 976 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Anbulategia | 943 362 013 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| KZgunea | 943 570 999 | Oa botika | 943 376 076 | Telefonica | 1004 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Iturralde botika | 943 363 395 | Euskaltel | 900 840 840 |

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

# Esperantzaren telefonoa

Abenduaren 1ean jaso zuen Gipuzkoako Esperantzaren Telefonoak Foru Aldundiak sortutako Boluntariadoaren Saria. Juan Carlos Redondo (lehendakaria) eta Lorena Pidalek (zuzendaria) ordezkatu zuten kolektibo osoa. Sari hau duela 17 urte sortu zuen Foru Aldundiak; egun, zenbait aurrezki-etxeren babesa ere badu sari honek.

Hogeita hamar bat bolondres ari dira entzute lan horretan; hiru psikologo ere jarduten dira zenbait gai sakon eta zail agertzen direnean; dei berezi horiek zuzenean profesional hauengana zuzentzen dituzte. Jakina, ez da edozein gai entzute lan hau egiteko. Horregatik, eginbehar hau betetzeko perfil espeziala eskatzen da eta test batzuk gainditu behar ditu; ikastaro sendo bat ere eginarazten zaie. Zuzendaritza taldea hamar pertsonaz osaturik dago.

Telefonoa badakizue duela 150 urte sortu zuela Antonio Meuccik; hain zuzen ere, bere emaztea gaixo zeukan eta bulegotik berarekin hitz egin ahal izateko tresnatxo bitxi bat sortu zuen. Horrela hasi zen telefonoaren ibilbidea. Esperantzaren telefonoa, berriz, Serafin Madrid sevillar erlijiosoari zor diogu; duela 40 urte izan zuen ideia bikain hori; geroztik, 4 milioi dei gutxienez egin dituzte nolabaiteko laguntza beharrean aurkitzen ziren eta diren pertsonek. Gipuzkoan bakarrik, 3.650 dei jaso zituzten iaz.

Zein jende klasek telefonatzen die? Bakardadeak jota daudenak, familiako arazoak pairatzen dituztenak, ondoez psikologikoak dauzkatenak, depresioarekin dabiltzanak, komunikazio arazo larriak dituztenak… Krisi ekonomikoak ere arazoa larritu egin du; gero eta jende "desesperatu" edo etsitu gehiago omen dago Lorena Pidalek dioenez; gazteek ere gero eta dei gehiago egiten omen dituzte; arrazoi nagusienak: maitasun arloan desengainatuta sentitzen direlako edota sexualitate arazoak dituztelako.

Lan honetan ari direnen filosofia. Kolektibo honen lehendakariak adierazten du dotore asko: "jendea belaunikaturik etortzen zaigu eta gu lurretik altxatzen saiatzen gara". Hauen ideia nagusia zera da: arazoak norbaitekin konpartitzen dituzunean, beroiek konpontzeko bidean jartzen zara; entzutea, sendatzaile da. Esperantza eta ilusioa transmititu nahi die. "guri deika ari direnengan bizi poza sortu nahi dugu", dio Lorena Pidalek. Saiatzen dira, baita, beharrean dagoen pertsonak bere barne mundu horretan orden apur bat jar dezan ere, jarrera pesimistak alde batera utzi eta jokaera baikorrak jantziaz. Beste helburuetako bat da larrialdian daudenei erabaki egokiak hartzen laguntzea; horrela hasten da benetako terapia, Juan Carlos Redondoren ustez.

Ekipo honetan lanean ari direnak samariar onarekin konparatuko nituzke. Gogoan izango duzue Ebanjelioko parabola hunkigarri hura: lapur batzuek bide ertzean erdi-hila utzi dute judutar gizagaixo bat. Hain zuzen, apaiz bat eta lebitar bat ( hemen ere ze egurra ematen dien, ematen digun? Jesusek "erlijioaren funtzionariei" ) zetozen bide hartan behera eta ikusi zuten zauritua, baina beste bide bazterretik aurrera jarraitu zuten. Handik zehar bidez zihoan samariar bat (judutarren etsaia),ordea, hurreratu egin zen eta hala ikusita errukia izan zuen; eta hurbildurik, zauriak lotu zizkion; bere abere gainean hartu eta ostatura eraman zuen, eta han zaindu.

Esperantzaren Telefonoa bihurtu da XXI. mendeko samariar onaren ostatu. Bihotzean zaurituta dauden pertsona horiek badakite ez daudela bakarrik, inoiz ez direla egongo; amildegian behera abiatzen badira ere, norbait izango dute alboan esango diena: "ez izan beldurrik, zurekin nago". Eta mirari hau egunero gertatzen da, egunean 24 orduz. Inork ez du horren berririk izango, prentsak ez du aldarrikatuko, Vatikanoak ez du egiaztatuko, ezta beharrik ere. Baina, benetako miraria hori da: sufritzen dagoenaren malkoak xukatu eta bihotza goxatzeko prest egotea beti. Bejondeizuela Juan Carlos eta konpainia!

*Esperantzaren Telefonoa: 900 840 845. Beti doakoa eta anonimoa.*

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - **Luis Aranalde** - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

# Hernaniko Echeveste farmaziak egingo du guardiako gaueko zerbitzua

**Urte hasierarekin batera eman da aldaketa. 2012an, gaueko larrialdiko zerbitzua Hernaniko Echeveste farmaziak egingo du. Elkano Kalea 9 behean dago, Hernanin. Hauxe du telefonoa: 943 552 087.**

Gaueko guardiako zerbitzua gaueko 22:00etan hasi eta hurrengo goizeko 9:00etan amaitzen da.

Eguneko larrialdi zerbitzua ere martxan izango da 2012an. Egutegi hori astero astero NOAUA! aldizkarian argitaratu ohi dugu. Hala ere, telefonoan ere jaso dezakezu egutegi hori, mezu baten bidez FARMA hitza 25600 zenbakira bidaliz (1,39 euro, BEZ barne).

2012an ere, herriko bi farmaziak irekita izango dira larunbatetan (9:00-13:30).

Kima

MASAJE LEKUA
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Baserriko haragia
·Frutak ·Barazkiak ·Etxeko produktuak ·Izoztuak
Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

# Mitologia,
## datozen Inauterietan mozorrotzeko gaia

**Mitologia da urte honetako Inauterietarako hautatu den mozorrotzeko gaia. Oraindik hilabete pasatxo falta den arren, prestaketa lanekin hasteko garaia da. Konturatzeko gainean izango baitugu 2012ko festa; aurten, otsailaren 18an.**


OTSAILAREN 18AREKIN EGOKITU DA AURTEN INAUTERI FESTA.

Olinpiar jokoak, zirkoa, itsasoa… Eta oraingoan mitologia, horixe da datozen inauterietarako hautatu den gaia. Nola mozorrotu erabakitzeko zailtasunak dituenak, gomendio moduan sarean sartu edota mitologiari buruzko libururen bat eskuratzea du onena. Hainbat ideien iturri izan liteke Interneten edota paperean jaso daitekeen informazioa.

### Mari, Tartalo, basajaunak...

Burua nekatzen hasi eta esku lanekin hasteko garaia da beraz. Otsailaren 18an, mitologiak Usurbil hartuko du. Urtero moduan, edizio honetako gaia ere zabala da. Gertutik hasita, Euskal Herriko mitologiak hainbat pertsonaietaz janzteko aukera ematen du; hor dugu Mari, Tartalo, basajaunak, lamiak… Gure mugetatik kanpo ere, gai honek ere askorako eman dezake.

### Egitaraua lotzen

NOAUA! Kultur Elkartea, Zumarte Musika Eskola, herriko zenbait koadrila eta ITAYA Gazte Asanbladaren laguntzaz antolatzen ari den Inauteri Festaren egitaraua egunotan lotzen dabil. Baina jada iragarri daitekeenez, aurreko urteetan bezala, mozorro festan ez da faltako musikarik, ezta otordu baten bueltan biltzeko aukerarik ere. Nobedadetik ere bada aurtengoan. Zehaztasun gehiagoren berri, datozen asteotan.

## Gaztetxeen aldeko manifestaziora joateko autobusa antolatu du ITAYAk

Bilboko Okupazio Mugimenduak Bizkaiko hiriburuan gaztetxeen alde manifestazio nazionala deitu du urtarrilaren 28rako eta hara joateko autobusa antolatu du ITAYA Gazte Asanbladak. Mobilizazioa, arratsaldeko 17:30etan abiatuko da Arriagatik, "Gure ametsak dirauen bitartean zuenak egin du" lemapean. 7Katu gaztetxearen bosgarren urteurrenaren harira deituriko hitzordua da aipaturikoa, baina egun berean, beste hainbat ekimen ere burutuko dira. Manifestazioaren ostean, kale animazioa izango da Bilboko Alde Zaharrean. Aurrez, goizetik hainbat ekimen iragarri dira; eztabaida guneak, olinpiadak edota herri bazkaria.

### Izen ematea non?

Bilbora joateko, aipatu moduan, Usurbildik autobusa antolatu dute ITAYAkoek. Izen emateko aukera dago jada, Irrati eta Karobi tabernetan. Baita itaya@euskalerria.org helbidera mezu bat bidalita ere.

## San Sebastian eguna, bezperatik

Ostiralean ospatuko da San Sebastian eguna. Bezperan, ordea, Udarregi ikastolako ikasleek bi danborrada saio eskainiko dituzte bazkalostean. Arratsaldeko 15:45etan hasita, Haur Hezkuntzakoek Agerialde atzeko jolastokian lehenbizi, eta gero, 16:00etatik aurrera, Lehen Hezkuntzakoen txanda izango da. 6-12 urte arteko haur eta gaztetxoek eraikin gorriko patioan eskainiko dute emanaldia. Udarregiko ikasle eta irakasleek danbor hotsekin agurtuko dute astea, San Sebastian egunez jai egingo baitute.

# Otsailaren 15era arte konfinatuta jarraituko du Patxi Segurolak

**Urtarrilaren 11n epaitu zuten baina oraindik epairik ez dago. Otsailaren 15ean jakinaraziko zaio erabakia eta ordura arte konfinatuta jarraituko du Autunen. Espetxe zigorra duela urtebete baino gehiago bete zuen arren, hori da egun Patxi Segurola herritarrak bizi duen egoera.**




Epaiketa salatzeko, elkarretaratzea egin zen aurreko astean.

Frantziar estatuak jarritako espetxe zigorra 2010eko azaroan bete zuen arren, 2012. urtean sartu berri garen honetan, oraindik ez dago aske Patxi Segurola herritarra. Espainiar estatuak eginiko estradizio eskaerak aztertzeko, joan den urtarrilaren 11n gai honengatik hirugarren aldiz epaitu zuten, baina aginagarrak halako hitzordu bat izango duen azken aldia ez da izango. Epaileak duela astebeteko saioan ez baitzuen inolako erabakirik hartu, eta otsailaren 15erako epaitegira joateko deitu zuen berriz Segurola.

> **FISKALAREN ESKAERA**
>
> "Estatu espainiarrak Segurola estraditatzeko eginiko bi eskaerak onartzea eskatua du Fiskalak"

Hiru aste barru Pariseko epaitegiek har dezaketen erabakiaren zain, ordura arte azken urte honetako egoera berean jarraituko du Patxik; Autunen konfinatuta, sorterritik 750 kilometrotara.

### Etorkizuna argitzeke

Patxi Segurola epaitzearen aurka eta aske uztea eskatzeko, elkarretaratzea deitu zen epaiketaren egun berean, urtarrilaren 11n.

Iluntzean Mikel Laboa plazan burutu zen mobilizazioan, azken orduetan Parisen gertaturikoaren berri ere eman zen. Antza, Fiskalak estatu espainiarrak Segurola estraditatzeko eginiko bi eskaerak onartzea eskatua du. Otsailaren 15ean epaileak eskaera hauek aintzakotzat hartuko balitu, Segurolak erabaki horren aurka helegitea jartzeko aukera izango luke. Halere, horrek prozesua luzatuko lukeela adierazi zen elkarretaratzean. Bizpahiru hilabetez edo bai gutxienez, eta ezingo litzateke jakin, denbora tarte horretan aginagarra zein egoeratan gera daitekeen.

### Euskal Herrian pentsatzen

Duela egun gutxi, epaiketaren bezperetan GARA egunkarirako eginiko elkarrizketa batean Segurolak zioenez, "panorama ez da batere erraza. Berez, Estatu frantsesean bizitzea debekatua dut, eta hirugarren herrialde bat aukeratzeko esan didate. Baina, nik nire buruan daukadan hirugarren herrialde hori Euskal Herria da".

## Sare sozialak, elkartasunaren hedabide

Duela astebeteko mobilizazioa, Segurolari elkartasuna adierazteko deitua zegoen. Hainbat herritar agertu zen hitzordura, baina Patxik azken egunotan sare sozialen bidez ere elkartasun mezu bat baino gehiago jaso ditu.

Usurbilgo Ezker Abertzaleak ere, usurbileginez.com web orrialdetik, besarkada bat bidali dio Segurolari: "une latzak bizi izan ditu eta bizitzen ari da Patxi. Bere etxetik ehundaka kilometrotara dago, senide eta lagunen goxotasunik gabe. Usurbilgo Ezker Abertzaleak Patxirekiko dagoen bidegabekeria salatzen du eta bide batez besarkada beroak eta maitasunezko muxuak bidaltzen dizkio. Eutsi!".

# Urtarrilaren 27an, elkarretaratzea Mikel Laboa plazan

**Hilabeteko azken ostiralean elkarretaratzea egin ohi da Mikel Laboa plazan. Urritik hona, ordea, euskal preso politikoen aldeko ekimen honetan talde ezberdinak ari dira parte hartzen. Usurbilen Nahi Ditugu taldeak deitu du urtarrilaren 27koa.**

"Egin dezagun bidea" ekimenaren deialdiari jarraituz, hilabeteko azken ostiraleko elkarretaratzeak talde ezberdinek antolatzen dituzte. Hala izan da urriaz geroztik hona. Usurbilen Nahi Ditugu taldekoek aditzera eman digutenez, "gu ere ekimenaren partaide garen aldetik, hil honetakoa guk deitu dugu". Betiko orduan izango da, 20:00etan, Mikel Laboa plazan. Eguraldia txarra balitz, frontoi barruan egingo litzateke elkarretaratzea.



Elkarretaratzea 20:00etan hasiko da.

### Olatz Lasagabaster, Brievan

Olatz Lasagabaster berriro Brievako espetxera eraman zuten, Gabonen aurretik.

### Karlos Martin, Martutenen

Urria amaieran, espetxean sartu zuten berriz Karlos Martin, zigorra osorik betetzera. Usurbilen Nahi Ditugu elkartekoek aditzera eman dutenez, "otsailaren 15ean aske utzi behar lukete, egun horretan bukatuko baitu bere espetxe-zigorra betetzeko geratzen zitzaizkion hiru hilabeteak".

Hauek dira, beraz, espetxean direnen helbide eguneratuak.

## Espetxean diren preso politikoen helbideak

**XABIER ARANBURU MUGURUZA**
C.P. Herrera de la Mancha
Mód. 1 - Apartado 77
13200 MANZANARES (Ciudad Real)

**JOKIN ERRASTI ELORZA**
C.P. Zuera
Ctra. Nacional, 330, km. 539
50298 ZUERA (Zaragoza)

**PATXI URANGA SALBIDE**
Centro de Cumplimiento de Foncalent
- Polígono de la Vallonga s/n
Apartado 5050 - 03113 (Alacant)

**RAMON URIBE NAVARRO**
Centro de Cumplimiento, mód. 13
Ctra. Nal. 630, km. 314
37.799 TOPAS (Salamanca)

**OLATZ LASAGABASTER ANZA**
Prisión Provincial – Mód. Verde
Ctra. De Vicolozano - Apdo. 206
05.194 BRIEVA - Avila

**KARLOS MARTIN SANCHEZ**
Prisión Provincial Martutene
Pº Martutene, 1
20014 DONOSTIA





# Erraustegiaren aurkako manifestazioa Donostian, otsailaren 4an larunbata

**Gipuzkoan aurreikusiak dauden azpiegitura handien lanak geratu eta eredu aldaketa bat eskatzeko manifestazioa antolatu dute Donostian, otsailaren 4rako. Deitzaileen artean daude, AHT Gelditu Elkarlana!, Pasaiako Superportuaren Aurkako Taldea, EHNE sindikatua, baita Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinadora eta Gipuzkoa Zero Zabor.**




Alderdi politiko zein giza mugimendu ezberdinek egin dute otsailaren 4ko deialdia.

Besteak beste, Zubietako erraustegi plantako lanak eta makro-kartzela proiektua geratzea eskatzeko deitu da Donostian burutuko den mobilizazioa. 17:30ean abiatuko da Bulebarretik. Ezker Abertzalea, Aralar, Alternatiba edota Ezker Anitza-IU alderdien babesa jaso du Gipuzkoako hiriburuko deialdiak. Donostiako manifestaldiaren atarian, hainbat ekimen burutuko direla ere iragarri dute antolatzaileek.

# 2012ko egitasmoak onartu ditu UEMAk

**UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko ordezkari politikoek 2012ko egitasmoa eta aurrekontua onartu dituzte aho batez Zumaian egindako batzarrean.**




Zumaian egin zen batzarra. Usurbil ere UEMAn dago.

2012ko egitasmoaren baitan, lehentasunezko esparruak hauek izango dira: euskararen arnasguneak zein diren eta euskararen normalizazioan zer-nolako garrantzia duten gizarteratzea, udalez udal barne erabilera planetan sakontzea eta udal administrazioetatik kanpoko esparrutan eragitea. 2012ko UEMA Eguna Goizuetan izango da.

## Datorren astean, mendi bizikleta martxa

**Andatza Mendizale Elkartearen baitan, mendi bizikletan aritzeko BTT Taldea osatu berri da. Bilguneak lehen ekimena ere deitua du jada urtarrilaren 29rako; Irisasi inguruak zeharkatuko dituen mendi bizikleta irteera antolatu dute.**

Hemen ekimenari buruzko zenbait zehaztasun, baina parte hartzeko asmotan direnak adi, antolatzaileek asteotan hilabete bukaerako hitzorduari buruzko nondik norakoen berri emanten joango baitira andatza.com web orrialdean:

**Eguna:** urtarrilak 29, igandea.
**Ordua:** 9:00h.
**Irteera/helmuga:** frontoia.
**Ibilbidearen luzera:** 30-32 km.
**Izen ematea:** frontoian, proba hasi aurretik. 10 euro federatuek, 15 euro federatu gabe daudenek.
**Informazio gehiago:**
www.andatza.com
andatzabtt@hotmail.com
**Antolatzailea:** Andatza Mendizale Elkartea, BTT Taldea.



Goizeko 9:00etan abiatuko dira frontoitik.

LATAILLADE ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

· PUBLIERREPORTAIA · Usurbiltzen Trukalariak Usurbil Zero Zabor Alkartasuna Usurbil osasuna atez ate Usurbilgo Udala

# DAIKONA EDO JAPONIAKO ARBIA

**Zoriontasunaren bila, elikaduraren bitartez oreka fisikoa, emozionala eta espirituala izaten ahalegindu gaitezke.**

Honela, Makrobiotikaren arabera, elikagaiak bi multzo nagusitan sailkatu ditzakegu. Alde batetik energia beroa, indartzailea eta barneratzailea duten elikagaiak ditugu: zerealak, lekaleak, okela, arraia, gatza edota sustrai barazkiak... Bestetik, azukrea, eztia, esnekiak, tropikoko fruituak, patatak, berenjenak edo alkohola bezalako energia hotza, ahultzailea eta hedatzailea daukaten elikagaiak erabil ditzakegu.



DAIKONA GORDINIK EDO PRESTATUTA JAN DAITEKE.

## Otarrean

Zoriontasuna emango digun oreka horren bila, elikagai hauek era jakin batean konbinatu ditzakegu, gutako bakoitzaren gorpuzkerara, bizilekura eta bizi dugun urtarora moldatuz.

Behin udazkena hasita, hainbeste zaintzen gaituen Luisek (baratzazainak) zoriontsu izaten lagunduko gaituen Daikona edo Japoniako arbia sartu digute Usurbiltzen kontsumo taldekook jasotzen dugun otarrean. Daikonak sustrai itxura du, azenario txuri handi baten antzekoa da. Oso kaloria gutxi ditu, eta A eta B taldeko bitaminak izateaz gain C bitamina asko du. Gainera, burdina, potasioa, magnesioa, sodioa, fosforoa eta kaltzioa bezalako mineralak ere badauzka. Digestioa egitea errazten du, eta propietate antiseptikoak ditu. Inmunologi sisteman eragin onuragarria dauka.

Daikona gordinik edota prestatuta jan daiteke, entsalada nahiz salda edo arrozdun plateretan, eta arrainari edo haragiari gehi dakioke. Azpimarratzekoa da Daikon kimuak ere jan daitezkeela. Ernetutako kimu hauek bereziki onak dira, bizirik egonik aipatutako ezaugarri onenak gureganatu ditzakegu eta.

# Usurbiltzenek sendabelar ikastaroa antolatu du

**Sendabelarrei buruz zerbait gehiago jakin edo gaian sakondu nahi duenak, orain du horretarako aukera. Irteerak eginez eta herbarioen bidez sendabelarrak ezagutu, biltzeko garai egokiak noiz diren jakin edota euren propietate eta atal erabilgarrien berri izan nahi duenari zuzendua dago, Usurbiltzen Elkarteak sendabelarren inguruan antolatu duen ikastaroa.**

Ezagutzaz gain, sendabelarrekin zer presta daitekeen ere ikasteko aukera egongo da aipatu ekimenean. "Klasean bertan preparatu desberdinak egingo dira; txanpua, xaboiak, ukenduak, landare estraktuak, olio sendagarriak...", iragarri dute Usurbiltzen-etik.

## Izen ematea zabalik

Ikastaroa urtarrilaren 28an hasiko da, hilabete honetako azken asteburuan. Hortik aurrera, klaseak larunbatero burutuko dira, goizez eta lau orduz, 9:30-13:30 artean, Santueneako frontoi berriko lokalean. Saioak Laura Gurbindok zuzenduko ditu. Ekimenerako izena aldez aurretik eman behar da, 661 972 670 telefono zenbakira deituta edo usurbiltzen@gmail.com helbidera email bat bidalita. Informazio gehiago ere komunikazio bide hauetatik jaso daiteke. Antolakuntzatik berri eman dutenez, ikastaroko prezioa zehazteke dago oraindik.



KLASEAK LARUNBATETAN IZANGO DIRA.

## Elena Jimenez, sexologoa

# “Baditugu lan ildo batzuk, baina horiek jendearen behar errealetan txertatu nahi genituzke”

**Urtarrilaren 10az geroztik zabalik da Usurbilgo Sexu Aholkularitza Gunea. Aurrerantzean, Sexune elkarteko kide Elena Jimenez sexologoa Gizarte Zerbitzuetako egoitzan egongo da astean behin, herritarren kezka eta zalantzekin lagundu edota proposamenak biltzeko. Aholkularitza, sentsibilizazioa eta hezkuntza izango dira Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailetik martxan jarri den zerbitzu berriaren bidez, jorratu nahi diren lan ildoak. Lerrootan zehaztasun gehiago.**



ASTEARTERO IZANGO DA SEXU AHOLKULARITZA GUNEA ZABALIK.

**NOAUA! Zergatik ireki da Usurbilen Sexu Aholkularitza Gunea?**

**Elena Jimenez.** Usurbilgo Udalaren Berdintasun Planaren barruan zegoen eskakizuna da, gabezia edo behar hori ikusten zen. Getxon eta Basauriko sexu informazio bulegoan gaude, tarte batean Arrasaten ere egon ginen. Usurbilgo Udaletik deitu ziguten ia proposamen bat egokitu genezakeen hemengo beharrei eta aurrekontuari. Luzatu genuen geure proposamena gustatu zitzaien. Eta hastea erabaki genuen.

**N. Getxo, Basauri, Arrasate aipatu dituzu. Zer nolako esperientziak izan dira, zer ekimen bideratu dituzue udalerriotan?**

**E. J.** Udalerri bakoitza oso desberdina da, bakoitzak bere izaera du. Niri, egia esanda, Usurbilgoa oso erronka polita iruditzen zait. Adibidez, Basaurin geure mezuak galdu egiten dira, udalerri handia baita. Usurbil udalerri txikia izanik, komunikazio aukera oso zuzenak dituela iruditzen zait eta horrek jendearengana asko gerturatzen gaitu. Lan ildoak antzekoak dira udalerri guztietan; sentsibilizazioa, hezkuntza, eta aholkularitza. Baina herriak bere egiteko modua oso desberdina izan daiteke. Udalerri handiagoak direnean, gehiago abiatzen gara gure eskaintzetatik. Baina hemen, parte hartzea gehiago bidera daiteke jendearen beharretatik.

> **ELENA JIMENEZ**
>
> “Egia da, batzuetan errazago egiten zaigu telefonoz hitz egitea. Aukera hori ere hor dago”

**N. Aldi berean ordea, udalerri txikia izatea ez al da muga alor hau lantzeko?**

**E. J.** Helburua, norberak bere burua ezagutzea litzateke. Horretarako oso garrantzitsu eta lagungarriak dira, sexologiako teoria edo ideiak. Horrek normal eta ez normal horretatik aldentzen eta norbera garen bezalakoak izate horretan badugula lekua ikusten laguntzen du.

**N. Aholkularitza zerbitzu hutsetik haratago doa beraz zerbitzu berria?**

**E. J.** Aholkularitza zerbitzu bat eskatu zen. Guk egiten dugun planteamendua ordea zabalagoa da. Heziketa modu zabalean landu, ideiak ikusi eta mila gauza egon daitezke. Herritarrekin egoteko aukera ikusten dugu; herriko talde, elkarte eta erakundeekin. Zertarako? Gu ez izateko eskaintza egiten dugunak bakarrik, baizik eta eskaintza horiek pertsona, talde eta elkarteen nahi eta beharretatik abiatzeko. Baditugu lan ildo batzuk, baina horiek jendearen behar errealetan txertatu nahi genituzke.

**N. Gune berri honetara etortzeko gogoa edo beharra izan, baina erreparoa ematen dionari zer esango zenioke?**

**E. J.** Herritarrak lasaitasunez hurbil daitezela. Asteartero egongo gara hemen, zerbitzu egonkorra izango da. Baina egia da, batzuetan errazago egiten zaigu telefonoz hitz egitea. Aukera hori ere hor dago. Eta batzuetan beldur horiekin, herritar horrek ahotsarekin edo hitz egiten pixka bat gertu sentitzen banau, behar bada animatzen da. Emaila izan daiteke beste aukera bat. Ikasturtean zehar ere ekimenak bideratuko ditugunez, bideak ere egon daitezke elkar ezagutzen joateko.

# "Baieztapen asko entzun ditzakegu hedabideetan, benetan zientifikoki zorrotzak ez direnak"

**NOAUA! Nola ulertzen duzue sexualitatea? Gai honen inguruko zer mezu hedatu nahi zenukete herritarren artean?**

**Elena Jimenez.** Denok emakumeak edo gizonak gara, identitate sexuatu bat dugu, bakarra, eta hor dago aniztasuna. Denak desberdinak gara eta hori da dugun altxorra. Hatz markak bezala, bakoitzak bakarrak egiten gaituzten geure berezitasunak ditugu. Hala izateak ere, bata eta bestearen arteko erakarpen horiek mugitzen ditu. Norberak bere burua ulertzea gustatuko litzaiguke, bere buruarekin begirunez izateko harremana. Hori lortzen dugun neurrian, besteekiko ditugun harremanak ere askoz errespetuzkoagoak izango dira. Bestalde, bizitza ahalik eta gozagarriena izatea bultzatzea. Hori aipatu beharra dago, ze askotan badirudi beste edozein balore garrantzitsuagoa dela, gozamenez edo gustuz bizitzea baino.

**N. Sexu askatasunak aldarrikapen iturri izaten jarraitzen duenez, zer muga ditugu alor honetan? Eta askatasunaren bidean non gaude egun?**

**E. J.** Esango nuke, historikoki sexualitatea ezezaguna izan dela eta orain ez da gutxiago. Normalean ez da hitz egiten nola eraikitzen garen, eta nola egiten garen, nola sortzen diren gustu eta nahiak. Beti bukaerako gauzetaz hitz egiten da, zer egin behar den, zer ez, zer den normala eta zer ez. Hori aldatzen joan da. Neurri batean, esan genezake lehen emakumeak ezin zirela desiratzen zuten subjektuak izan. Desiragarriak egon behar ziren baina ez gehiegi, ez sartzeko emagalduaren eta probokazioaren barruan.

**N. Eta epaitua ez izateko?**

**E. J.** Azkenean eredua dena epai bat da. Zaude egon behar zaren lekuan, onean edo txarrean. Eta homogeneizazioa dator. Orain gara multiorgasmikoak eta behartuak gaude beti multiorgasmikoak izatera. Gizonezkoak beste hainbeste. Lehen bere plazeraz bakarrik arduratu behar ziren, gero emakumearen plazeraz ere. Eta orain oso kezkatua dago, lehen harremana izan baino lehen jada dena jakin behar delako; nola izan eraginkorrak, ahalik eta denbora gutxienean ahalik eta plazer gehien, goren aurkitzea…

**N. Mutur batetik bestera pasa gara orduan?**

**E. J.** Eta inoiz ez dugu hitz egiten zer nahi dudan nik. Zer egin nahi dudan, zergatik eta legitimitate horretaz. Baizik eta non egon behar naizen, zer lortu behar dudan. Egun aniztasuna dago. Eredu berriak sortzen dira, baina denei balio behar zaizkigu ereduok. Gero ez baitugu gozatzen, ez baita geure eredua, ez baita geure nahietatik abiatzen. Baieztapen asko entzun ditzakegu hedabideetan, benetan zientifikoki zorrotzak ez direnak. Edo oso gauza edo pertsona zehatz bati erantzuten diote eta hori orokortzen da. Abiapuntua pertsona denez, ezin da orokortu. Hori ulertuko bagenu, estutzen gaituzten espektatiba piloa bertan behera geratuko lirateke eta oso lagungarria litzateke.



GIZARTE ZERBITZUEN BULEGOETAN DAGO AHOLKULARITZA GUNEA.

**N. Egiteko asko dago beraz?**

**E. J.** Geure buruarekin zintzoak bagara, badakigu gai hau ez dela erraza guretzat. Egiteko asko dugu denok, norberegandik abiatuta.

## Sexu Aholkularitza Gunea, zertarako lagungarria?

Elena Jimenez sexologoak, zabalik dagoen gune berria baliagarria zertarako izan daitekeen aipatzen du lerrootan, hainbat adibide jarrita.

-Haur bat oso txikia izan, eta ama berriz haurdun dago. Amaren sabelaz galdetzen hasten da haurra eta amak gaia azaltzeko zalantzak ditu.

-Nerabea aldaketa garai betean dago. Gurasoei ez die hitz egiten. Zer eta nola azaldu gurasoek, zer ez, noraino, nola egon ondoan laguntzeko…

-Gurasoek seme-alabei sexualitatearen inguruko liburu bat oparitu nahi diete: zer nolako liburua?, zein da aproposena?, zer dago merkatuan?…

-Desiraren norabidean suerta daitezkeen zalantzak eta ereduekiko zalantzak; mutilak ala neskak gustatu, markaturik dagoen emakume eredukoa ez sentitzea, mutil femeninoa dut eta ez dakit nola jokatu…

-Zer da transexualitatea? Interesa piztu dezaketen gai honen eta beste batzuen inguruko informazioa eta sakontze lana.

### Aurretik, hitzordua eskatu

**Jendaurreko ordutegia:** asteartero, 17:00-19:00 (aurretik hitzordua eskatu behar da).

**E-posta:** sexuaholku@usurbil.net

**Telefono zenbakia:** 697 919 516.

**Helbidea:** Kale Nagusia, 43 behea (Gizarte Zerbitzuetako egoitza).

**Eskaintzen den zerbitzua:** informazio, formazio eta sexologia alorreko aholkularitza.

**Nori zuzendua:** adin guztietako herritarrei.

# Kultur eraikin berriaren deituraren inguruan...

**Kultur eraikin berriak izan behar duen izenaren inguruan eztabaida sortu da: Arrillagaenea edo Potxoenea. Zalantza horren bueltan interesgarri izango direlakoan, hainbat jakingarri eman dizkigute Josu Tellabidek eta Asier Agirresarobek, "Usurbilgo ondarea ezagutzen" (2009) liburuaren egileek.**

"Kultur etxe berria hartuko duen eraikina, garai bateko Usurbilen beste asko bezala (Juandeuntzenea, Konportto, Karteruanea, Patrinea eta hainbat baserri…), Saroe jauregiko familiaren jabetza izan da. Udalak bere esku hartu duen arte, hutsik geratu aurretik, maizter familiak bizi izan dira bertan, beheko solairuko ukuiluan behi bat edo bi, eta astoa zutela; lurrik gabeko kale-baserri txiki bat baitzen. Garai batean, gainera, eraikin berean eta plazari begira, ukuiluarekin hormaz horma, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren sukurtsalaren bulegoa egon zen.

## JATORRIZKO IZENA

"Dokumentuetan garbi azaltzen den moduan eraikinak Arrillagaenea edo Arribillaga du jatorrizko izena"

Dokumentuetan garbi azaltzen den moduan eraikinak Arrillagaenea edo Arribillaga du jatorrizko izena. Espainiako erregearen izenean Ameriketan eta Asia hego-ekialdean XVIII. mendearen lehen erdian bereak eta bi egin zituen Francisco Echeveste militarraren inguruan egin den azterketak, besteak beste, honakoa dio: "Usurbilgo Salbatore eliza nagusirako 6.000 peso utzi zituen [Echevestek], osoki kanpandorre bat eraikitzeko erabili zirenak. 1759an esleitu zen obra, baina arazo handi batekin egin zuten topo. Elizatik Goiko plazara ematen zuen atearen parean egin nahi zen eta bertan Arrillagaenea etxea zegoen. Gora-behera batzuen ondoren hitzarmen bat sinatu zen eta etxea eraistearen truke bost urteko epean dorreak uzten zuen tokian edo plazan luzituko zuen beste oruberen batean etxe berri bat altxatuko zen". 1766an amaitutako eraikin berri hori kultur etxe bilakatu nahi da orain.

Luis Murugarren historialariak ere, bere Usurbilgo lanean dio Arrillagaenea etxea 1760an izan zela eraitsia, aurrekoarekin bat etorriz. Beraz, dokumentuetan jasoa dagoen izena badugu eta jatorrizko kokapena ez zela oraingoa ere bai, baizik eta kanpandorreak hartzen duen lekuan, edo hor nonbait.

Dena dela, aurrekoak baina mende erdi zaharragoa den ondorengo dokumentuaren arabera jatorrizko eraikina izendatzerakoan beste izen hau ageri da: Urdintxo. Ignazio de Soroa kapitainaren 1689ko ondasun zerrendan honela esaten da: *"…La cassa de Urdincho sitta en la misma villa a espaldas de la parroquial deella…"*. Badirudi beraz, etxe hura Arrillagaenea baino lehen Urdintxo izenarekin zela ezaguna.

Potxoenea edo Pottoenea ezizenari dagokionez, guztiz lotuta dago eraikin honekin, baita aurrekoarekin ere, eta ez da azken mendeko kontua, aspalditik datorrena baizik. Usurbilen jasotako esaera zahar batek honela dio: *"agiñatarrek bost zaku inbidi galdu zituzten Pottoneko bueltan!"*. Nola izan zen hura? Bada, Kalezar Hiribilduko buru izendatu zutenetik datoz kalezartar eta aginatarren arteko liskarrak, mendez mende iraun duen lehia. Hala, ohiko lekuan, *"Parisko aixtegian"*, herri batzarra egin zen batean, botazioa egin eta zazpi zaku *"inbidia"* banatu ziren, bost aginatarrentzat, bi Kaleberrin geratu ziren eta Kalezar batere gabe gelditu zen. Etxeratzekoan, baina, aginagatarrek bost zakuak galdu egin omen zituzten, non eta Potxoeneko bueltan. Ondorioz, botere lehia horretan Kaleberri atera zen irabazle, *"inbidia"* zaku guztien jabe eta udalerriko buru, gaur arte.

Esanahiari dagokionez, pots edo potx asto txikiari deitzen zaio. R.M. de Azkuek bere hiru hizkuntzetako hiztegi bikainean



KULTURA AHOLKU BATZORDEAN IZENA ERABAKITZEN ARI DIRA ASTEOTAN.

(1905), Euskal Herriko beste lurraldeetako adiera ezberdinez gain, honela dio: *"pots, potx; (B, G) voz que se llama al burro pequeño"*. Hainbat istorio eta esaera politekin ere lotuta dago etxe hau: *" enero, pebrero, martzo, abril Pottoneko astoa goseak hil!"*. Usurbilen jasotako beste atsotitz honek ere ederki agertzen du zorioneko hitz horren esanahia. *"Arre potto, gizon potto, nere pottokua, beti okerretikan nere astotxua"*. Honela esaten zitzaion bidean zamatua sorora, merkatura edo errotara zihoan astoari, eta Arrillagaeneako potx edo *"potto"* txikia ere, hala joango zen.

## "Potxo ez da mespretxuzkoa"

Beraz, ondorioztatu daiteke potxo edo potto izena ez dela mespretxuzkoa, eta gaztelerazko "Pocho,-a" hitzarekin ez duela zerikusirik: *Descolorido, quebrado de color;* frutari buruz, *que está podrida o empieza a pudrirse;* edo pertsona bati buruz, *floja de carnes o que no disfruta de buena salud.* Arrillaga deitura Usurbilen oso arrunta denez (izen hori duten etxe eta abizen ugari dago, lehen eta gaur egun ere), litekeena da horietatik bereizteko Pottoenea erabiltzen hasi izana, gaurdaino; izan ere, egun erabat errotuta eta zabaldu-ta dagoen izena da".

## Eraikinak, `zerraldo beltz´ baten itxura

Eraberritzeari buruzko azalpenak ere eman dizkigute Josu Tellabidek eta Asier Agirresarobek. Ez daude ados egin den berritze moduarekin: "Interes gehien zuen aurrealdeko fatxada mantendu da bakarrik, plazari begira dagoena, ez erabat gainera, eta beste paretak estalki beltzez estali dira, eraikinak `zerraldo beltz´ baten itxura hartuz. Beste behin ere, eta denbora tarte laburrean bada bigarrena, Usurbilen geratzen den gunerik baliotsuena ez da behar bezala baloratua eta eraberritua izan. Ez da gustu kontua, herriko arkitektura tradizionalari zor zaion errespetua baizik".

# CAF-Elhuyar sariketarako lanak aurkezteko epea zabalik

**Zientzia eta teknologia arloetako gaien eta ikerketen euskarazko dibulgazioa bultzatzeko, martxan da beste behin, CAF-Elhuyar Saria. Lanak aurkezteko epea zabalik egongo da urtarrilaren 27ra arte.**

Bi modu hauetan aurkeztu daitezke sariketarako lanak: Elhuyar Fundazioko egoitzara eramanez (Osinalde industrialdera jo behar da), edo posta elektronikoz helbide honetara bidaliz:
cafelhuyarsariak@elhuyar.com

Informazio gehiago aipatu helbide horretan edo 943 363 040 telefono zenbakian jaso daiteke. Ekimena Elhuyar Fundazioak antolatu, CAF enpresak babestu eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak diruz laguntzen du.

### Kategoriak

-Dibulgazio-artikulu originalak: dibulgazio artikulu orokorrak eta egilearen doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluak. Gehienez, 10.000 karaktere. Saria: 2.000 euro.

-Gazteei zuzendutako zientzia-narrazioak. Gutxienez, 165.000 karaktere. Saria: 5.000 euro.

-2011n argitaratutako zientzia-kazetaritzaren arloko lanak. Saria: 2.000 euro.



José María Rivadeneyrak sarietako bat irabazi zuen iaz.

# 5.434 euro, Eperra ikastolaren alde

**Nafartarrak taldetik jakinarazi dutenez, urte amaieran Sohütako Eperra ikastolaren alde egin zuten kanpainan, 5.434 euroko laguntza jaso dute Gabonetako otarren salmentari esker. Usurbilgo kultur bilgunetik eskerrak eman nahi dizkiete euren laguntza eman duten herritar guztiei. Jakinarazi dutenez, 2012. urte amaieran ere laguntza eskaintzeko aukera izango da berriz.**

### Mauleko alkatea, Sutegin

Lehenbizi, Usurbilgo Udalak harrera egin zion eta gero, Sutegiko auditorioan bere udalerri eta herrialdeari buruzko hitzaldia eskaini zuen. Mauleko alkate Michel Etxebeste Usurbilen izan zen abenduaren 20an, Nafartarrak Taldeak gonbidatuta. Zuberoako




Nafartarrak taldeak zuzendu du elkartasun kanpaina.

Eperra ikastolaren alde egun haietan antolaturiko ekintzen artean zegoen aipatu hitzordua. Zuberoko ekonomia izan zuen hizpide Etxebestek, Sutegin.

Ez zen ordea egun haietako hitzaldi bakarra izan. Orreagako guda hizpide zuen hitzaldia ere antolatu baitzuten Nafartarrak taldekoek. Eta Mixel Etxekoparen kontzertuaz ere gozatu ahal izan zen abenduaren 17an.

## Familiaren garapen ebolutiboari buruzko tailerrak

Astebete barru abiatuko dira Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak familiaren garapen ebolutiboari buruz antolatu dituen saioak. Gai berari lotuta azaroan buruturiko tailerren jarraipena da, hileotarako deituak dauden hitzorduak.

Tailerrak Izar Arregi psikopedagogoak zuzenduko ditu. Hitzorduotan egoteko lehentasuna azaroko tailerretan parte hartu zuten gurasoek izango dute, nahiz Hitz Ahotik berri eman dutenez, gainerako herritarrak ere bertara daitezkeen tailer hauetara.

Izen ematea zabalik dago:
hitzaho@udarregi.com







# Kopa jokatzen hasteko prest da nesken futbol taldea

**Urtebeteko etenaldiaren ostean, nesken taldea osatu da berriz, Usurbil FT-ren baitan. Denboraldi erdian elkarrizketatu dugu taldea, Kopa asteburu honetan bertan jokatzen hastear direnean. Entrenatzaile Nagore Unanuek herriko neskak futbolean parte hartzera animatzen ditu lerrootan. Gogorarazten dutenez, horretarako bi baldintza baino ez dira bete behar; 14-15 urtetik gora eduki eta futbolean jokatzeko gogoa izatea.**



URTEBETEKO ETENALDIAREN ONDOREN BERRIZ ERE OSATU DA NESKEN TALDEA.

**NOAUA! Zenbat jokalari bildu zarete denboraldi honetarako?**

**Nagore Unanue.** 20 neska gara taldean. Entrenatzaile moduan hiru gaude; ni eta Dioni eta Angel Errasti. Entrenamendu saioetarako bitan biltzen gara, astearte eta ostiraletan, 19:30etan Haranen. Entrenamenduak hiruron artean eramaten ditugu eta partidetan neroni egoten naiz.

> NAGORE UNANUE
>
> "Kostatzen ari zaigu, baina pixkanaka aurrera egiten ari gara"

**N. Urtebeteko etenaldiaren ostean, zer nolakoa izan da itzulera?**

**N. U.** Urtebete eta gero kosta egin zaigu. Jendea gogoz etorri zen, futbolerako gogoa dagoela ikusten da, baina urtebete ezer egin gabe egon direla nabaritu egiten da. Kostatzen ari zaigu, baina pixkanaka aurrera egiten ari gara.

**N. Zer lan suposatu du nesken taldea berriz osatzeak?**

**N. U.** Jakina da, duela urte asko nesken taldea egon zela eta horri esker, urte batean mantendu eta aurrera jarraitu zuela Usurbil FT-k. Aurten, batez ere, lehenago jolasten zuten nesken burugogorkeriagatik edo osatu da taldea. Kosta zaigu, ze badakigu, herri txikia da. Jende berria motibatzea zailagoa da. Baina baditugu jokalari berri batzuk ere; Andoaingo bi etorri dira eta baita Costa Ricako neska bat ere. Guztiak gogotsu.

**N. Etorkizunera begira halere, taldea egonkortzeko harrobia izan baduzue, Futbol Eskolan badabiltza eta neskak?**

**N. U.** Prestatzaileoi orain entrenatzen ditugun neskak, aurrera jarraitzeko motibatzen digute. Baina are gehiago, behetik datozen gaztetxoek. Formatzeko gogotsu daude. Itxaroten ari gara, ia gaztetxoak hazten doazen eta Usurbil FT-ko nesken taldeak, beti ezaguna izan den bezala, urteetan jarraitzen duen.

**N. Noiz gerta liteke erreleboa?**

**N. U.** Oraindik bizpahiru urte beharko dira. Hor ari gara, helduenak motibarazten gure taldeko gazteek jarrai dezaten. Ia zer gertatzen den, horretan saiatuko gara behintzat.









# "Ia hemendik aurrera behingoz aireratzen garen"

**NOAUA! Denboraldi honi dagokionean, hasiera ezin hobea izan zenuten, esaterako, Hernaniren aurka lau eta bat irabazita?**

**Nagore Unanue.** Lehen esan bezala, zaila izan da guretzat berriz hastea. Hiruzpalau pertsona Ostadarren jokatzen egon dira eta dinamika jarraitu dute. Baina beste asko urtebete geldirik egon dira. Horregatik, hasieran asko kostatzen zitzaigun. Gure taldeak dituen mugak ditu, baina kirola egitera joaten gara, ondo pasatzera.

> NAGORE UNANUE
>
> "Maila fisikoa bakarrik ez, buruak ere lan handia egiten du"

Saiatzen gara hobetzen, oraindik hobetzeko tartea badugu. Hasieran gol piloa jaso genituen. Baina behin ez dakit zer gertatu zen, txip aldaketa bat edo, partida ezin hobea egin genuen, eta 4-1 irabazi. Futbolean jolasteko maila fisikoa bakarrik ez, buruak ere lan handia egiten duela konturatu ginen. Buruaren lanketa horretan lan handia egin dugu.

**N. Une honetan denboraldiko ze puntutan zaudete?**

**N. U.** Duela bi aste amaitu genuen Liga. Koparako taldea motibatua dago. Kopako Txapelketa hobeto joango zaigula uste dugu, gure mailako taldeak egoki daitezke eta. Hamabi bat neurketa izango dira. Zumarraga, Azkoitia, Elgoibar, Orio, Donostia… Bidaiatzea tokatuko zaigu.



NAGORE UNANUE ENTRENATZAILEA.

**N. Kopako txapelketako helburu nagusia beraz, lehia horretan egotea da ezta?**

**N. U.** Lehian egotea bai. Oso argi izan dugu gure oinarria zein den. Hortik, jendeak hobetu dezakeela badakigu. Orain arte aurrerapen handia egin dugu, baina ia hemendik aurrera behingoz aireratzen garen.

**N. Duela bi urte, orduko jokalariek jarrera baikorra zutela aipatzen zuten entrenatzaileek. Egungo nesken taldeak zer ezaugarri ditu?**

**N. U.** Aurreko bi urteetatik gauzak dezente aldatu dira, eta kostatzen zaigu. Gu gustura goaz, baina entrenamendu saioetan jokalari aldetik gutxi biltzen gara eta orduan zaila da. Kirola egitera goaz, izerdia bota, lagun artean gaude eta egia da oso ondo ematen garela geure artean. Baina futbolean ari gara, entitate baten baitan, eta Usurbil gora ateratzeko, Usurbilen izena barruan baldin badugu, gehiago egin dezakegula uste dut. Futbolean jarraitzeko lehiakorra ere izan behar da. Halere, partiduen aurrean, askok jartzen dute gogo hori. Gero emaitzak lortzea ez da hain erraza, ondo formatutako taldeak baitaude.

## Hasi nahi duenarentzat

Usurbilgo neskaren batek futbolean hasi nahi badu, ateak zabalik ditu: "14-15 urtetik gorakoek parte har dezakete taldean. Kuriositatea izan edo futbolean aritu nahi duenak, etor dadila gugana. Astearte edo ostiral arratsalde batean igo dadila Haranera, zapatilekin eta konpromisorik gabe, entrenatzen hasi eta kito. Edo idatzi dezatela email bat: futusurbil@yahoo.es"

## Futbol taldeak animatzera joateko deia

Usurbil FT-tik berri eman dutenez, bi hitzordu garrantzitsu dituzte datorren asteburuan. Biak ere Haranen izango dira, eta horregatik, herritarrei kolore gorriko arropa jantzita Haranera futbolariak animatzera gonbidatzen dituzte. Aipatu moduan, giltzarriak izan daitezkeen bi partida jokatuko baitira.

Batetik, jubenilak Ohorezko Mailara igotzeko fasean murgilduta daude, eta Usurbil FT-tik berri eman dutenez, "lehen bi partidak jokatuta lehendabiziko postuan dago" taldea. Larunbat arratsaldeko 17:30ean jokatuko dute asteburuko neurketa.

Bestalde, Preferente mailako taldeak Tolosa B hartuko du etxean eta berri eman dutenez, "lidertza hartzeko aukera izango genuke", arratsaldeko 15:30etik aurrera jokatuko duten neurketan. Bi partidak, Haranen dira.

## Urtarrilak 21 larunbata

**Eskubaloia**

**Senior mutilak, 2. Territoriala. 16.00h**
Usurbil K.E. - Amenabar Zarautz

**Senior mutilak, 2. Nazionala. 17.30h**
Atez Ate Usurbil - Ford Mugarri Arrasate









## Agenda !

### Urtarrilak 19 osteguna

- **Udarregiko ikasleen danborrada**
**HH mailakoak:** 15:45-16:15, Agerialdeko patioan.
**LHko mailakoak:** 16:00-16:30, beheko ikastolako plazan.

### Urtarrilak 28 larunbata

- **Sendabelar ikastaroaren hasiera** Santueneko frontoi berriko lokalean. 661 972 670 / usurbiltzen@gmail.com

### Urtarrilak 29 igandea

- **Mendi bizikleta irteera** 9:00etan frontoitik.

### Goardiako farmaziak

**Urtarrilak 19, osteguna**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Urtarrilak 20, ostirala**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Urtarrilak 21, larunbata**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Urtarrilak 22, igandea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Urtarrilak 23, astelehena**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Urtarrilak 24, asteartea**
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Urtarrilak 25, asteazkena**
Rodriguez, Nagusia 42 Lasarte

**Urtarrilak 26, osteguna**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Urtarrilak 27, ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Urtarrilak 28, larunbata**
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Urtarrilak 29, igandea**
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

***GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ***
***Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani***
***Telefono zenbakia: 943 552 087.***
***Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA 25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)***

# Hainbat ikastaro KzGunean

**Egun erdiz egon ohi da zabalik Kale Nagusian kokaturik dagoen Kzgunea, urtarrilean goizez, 9:00-13:00 artean. Hona hemen, datozen egunotan eskainiko diren ikastaroen berri.**

Informazio gehiago 943 570 999 telefono zenbakian, www.kzgunea.net web orrialdean edota honako posta helbidean tutor.usurbil@kzgunea.net

**Urtarrilak 18:** Ubuntu, 9:00-11:00 artean eta Delicious, 11:00-13:00 artean.
**Urtarrilak 19:** OpenOffice Writer: Oinarrizkoa, 9:00-11:00 artean eta Youtube, 11:00-13:00 artean.
**Urtarrilak 20:** OpenOffice Writer: Aurreratua, 9:00-11:00 artean eta Flickr, 11:00-13:00 artean.
**Urtarrilak 23:** Picnik, 9:00-11:00 artean.



URTARRILEAN GOIZEZ IZANGO DA IREKITA KZGUNEA.

**Urtarrilak 23-24:** Irudi digitalen tratamendua I, 11:00-13:00 artean.
**Urtarrilak 24:** Dohainiko antibirus programak, 9:00-11:00 artean.
**Urtarrilak 25:** WiFi, 9:00-11:00 artean.
**Urtarrilak 25-26:** Irudi digitalen tratamendua II, 11:00-13:00 artean.
**Urtarrilak 26:** eBay, 9:00-11:00 artean.

## Bainuetxeetara IMSERSOrekin batera

Gizarte Zerbitzuetatik berri eman dutenez, adineko herritarrek bainuetxeetara joateko programan izen emateko aukera dute. 10-12 egun arteko egonaldien artean hauta dezakete interesa dutenek (tratamenduak, alojamendua eta animazio ekintzak barne).

Informazio gehiago, Gizarte Zerbitzuetako egoitzan, Kale Nagusia, 43. zenbakian edota bertara deituta, 943 377 110 telefono zenbakira hain zuzen.

## Mendeku Itxuaren kontzertua Lasarte-Orian

2012ko inguruotako lehen kontzerturako hitzordua egina du Mendeku Itxua herriko musika taldeak. Urtarrilaren 27an Lasarte-Orian joko dute Ander Aizpuruak, Ixak Arrutik, Iñigo Rotetak eta Martin Larrañagak. Abend kafe antzokiak antolatu duen Metal Gauaren baitan eskainiko dute emanaldia, Hira taldekoekin batera. Gauerdian hasiko den kontzertuetarako sarrerak 5 eurotan egongo dira salgai.






### ETXEBIZITZA

- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara eta igogailuarekin. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berrituta, fatxada eta teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
-Altzariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu.
626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Usurbilen, 70 metroko etxebizitza bat alokatzen da, eguzkitsua. Tlf: 608 671 925. Imanol.
- Pisua alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudan pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitekin trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
-Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
-Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- 230 metro etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro koadro lursailean. Kalezarren. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Opel Corsa 1.4 Twinport Ecotec 66kw/90 cv salgai. Aleazio llantak 16, aurreko lainotako argiekin. Aire egokitua, ABS eta parrila. Gidari, kopilotu eta alboetako airbag-a. CD 30 MP 3 bolantean agintearekin. Margotu berria eta neumatiko berriekin. Gidari bakarra izan du orain arte. 88.500 km. Prezioa: 7.250 euro. 678 332 646
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 metrokoa, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m2-ko garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen. 647 120 253.
-Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
-50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

- Xarma tabernarako sukaldari bat behar dugu. Interesdunek deitu 943 368 771 telefono zenbakira.
- Atsedena agindu dioten ama batek ama den emakume euskaldun eta eskarmentuduna behar du, egunean 4-5 orduz haur bat zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. 607263383.
- Zerbitzari euskaldun bat behar da asteburutan lan egiteko. Lan egin nahi baduzu, deitu zenbaki hauetara: 680 483 164 / 607 454 879
-Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

#### Lan-eskaintzak

- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf.: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
-Umeak zainduko nituzke arratsaldez, edo zerbitzari moduan lan egin nahi nuke asteburuetan. 638 894 845.
-Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatua eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatua naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziekin eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. Tlf.: 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
-Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko, nahi den ordutegian. Disponibilitate osoa ordutegi aldetik, astelehenetik ostiralera. 687 348 223.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
-Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
-Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
-Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean.
688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetarako, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest: 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
-Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
-Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
-Fisika eta matematikako klaseak emateko prest. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685772602 // 943371277.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Haur sila eta kapazoa, Bogaboo edo antzeko bat saltzen baduzu, deitu telefono honetara: 667 715 075.
- Estutxe baten barruan zeuden betaurreko graduatuak galdu ditut, Kale Nagusi ondotik Kalezarrera doan bide inguruan. Aurkitu badituzu, deitu 943 364 699
- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 (Jesus Mari).
- Legorretako babarruna salgai. 943 80 62 48
- Olentzerori eskatu badiozu telebista berri bat, telebista zaharra (baldin badadil, noski) gustora erretiratuko nizuke ikasle pisu batentzako. 675 71 72 67. Irene
- Arratoi mestizo arrazako txakur bat oparitzen da. Urte eta erdikoa, oso leiala. 666 454 930
- 3 metrotako bambu kañaberak trukerako edo saltzeko. 620 809 568 (Manu Aranburu).
- Gas naturalarekin funtzionatzen duen bost sutako sukaldea labearekin. Egoera onean eta oparitzeko, premiazkoa da. 661 264 405 (arratsaldetan deitu).
- Zaldi bat jartzeko lursail bat alokatuko nuke 616 260 451.
- Bi hilabeteko bost txakur-kume gara etxe bila. Mesedez, eraman gaitzazue. 635 714 030.
- Belarritakoa galdu nuen Santixabel egunean, kaxko inguruan. Balio sentimental handia du, aurkitu baduzu, deitu telefono honetara: 687 406 209.
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Masajeak ematen ditut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 deitu eta utzi zure mezua.
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxeetan, elkarte gastronomikoetan...... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaude: 669645585 / 943365191.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- WII-a eta PSP-a kopiatzen da, Internetetik jaitsitako joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen, ez da kontsola irekitzen. Softwarea aldatzen da baina garantia mantenduz. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



**Zorionak Iñaki!** Urtarrilaren 23an, 9 urte egingo dituzu. Ondo pasa eguna eta muxu potolo bat! Etxekoen partez.



**Zorionak Jon!** Larunbat honetan 6 urte beteko dituzu. Tarta goxoren bat ekarriko al zenuke eskolara? Agiñako eskolakoen partez ondo pasa zure urtebetetzean.



**Zorionak Maider!** 6 urte beteko dituzu urtarrilaren 20an. Zorionak eta muxuak Olatz eta etxekoen partez.

### HILDAKOAK



**Txomin Lizaso Zarauz**
81 urterekin hil zen, urtarrilaren 10ean.

# TxoTx!!


Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!
AIALDE BERRI
Tel: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenea


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867


SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 · USURBIL · Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ✆ 943 55 69 81


ERRETEGIA·NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
Sagardo
ekologikoa
Arratzain Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL


✆ 943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


AGINAGA
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel eta Faxa: 943 36 67 10
Tel: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com

# Esperientzia berri batean parte hartu nahi al duzu?

100

# EKOSHOPPER












*Erosketak egiteko orgatxo tolesgarri bana (ikus irudikoa) emango zaie kanpainan aholku ematen zaien guztiei*

**DOHAKO AHOLKULARITZA-ZERBITZUA, HONDAKIN GUTXIAGO SORTZEN DUEN EROSKETA EGIN AHAL IZATEKO**

**IZENA EMATEKO AUKERAK**

**2012ko otsailaren 5era arteko epea** duzu izena emateko.

- Deitu **943 670 249** telefono-zenbakira (9:00-14:00/15:00-18:00).
- Bete Sanmarko Mankomunitatearen webguneko formularioa: **www.sanmarko.net**
- Jo leku hauetan aurkituko dituzun **informazioguneetakoren** batera.

| INFORMAZIOGUNEA | LEKUA | DATA | ORDUTEGIA |
|---|---|---|---|
| Urbil merkataritza-gunea | Usurbil | urtarrilak 27 | 16:00-22:00 |
| Bulebarra (Musika-kioskoaren ondoan) | Donostia-San Sebastián | urtarrilak 28 | 11:00-14:00 / 16:00-20:00 |
| Merkatu txikia (Gamon Zumardia) | Errenteria | urtarrilak 30 | 10:00-14:00 |
| Garbera merkataritza-gunea | Donostia-San Sebastián | otsailak 4 | 16:00-22:00 |

Sanmarko Mankomunitatea - Mancomunidad de San Marcos
Vitoria-Gasteiz, 10. 20018 Donostia - Tel. 943 214 977
www.sanmarko.net www.merka2sanmarcos.org

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

sanmarko